



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI ESPEZIFIKOAK, ARABAKO KALKULUGUNEA SA FORU SOZietate Publikoan bi SAP AHOLKULARI LANPOSTU (ANALISTA FUNTZIONALAREN PROFILA) (2025003) BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN HAUTAKETA ARAUTZEKO

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Informazio Sistemen Arloan integratuko da, zeina proiektuaren burutzaren eta, aldi berean, arloko arduradunaren mende baitago.

AKSAn gauzatzen duen lanbide jardueran, honako eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Erabiltzaileen beharrak aztertzea.
- Aplikazioaren edo sistemaren zati bakoitza diseinatzea edo parametrizatzea, teknologiaren arabera. Datu eredutik erabiltzaile interfazera.
- Aplikazioaren edo sistemaren alderdi guztiak dokumentatzea, metodologiaren arabera.
- Garapenen funtzionamendua baliozkotzeko beharrezko probak zehaztea.
- Garapenak baliozkotzea eta onartzea.
- Ingurune desberdinetako ezarpena kudeatzea.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek posta elektronikoz bidali beharko dut 2025003@qualisconsultores.es helbidera oinarri orokorretako 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa (bidalitako mezuak 30 MB baino gehiago hartzen baditu, mezu bat baino gehiago bidali beharko da, bakoitzean baimendutako gehienekoa gainditu gabe).

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 27(e)an amaituko da.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKATUTAKO TITULAZIOA:

- Informazio sistemekin lotutako goi mailako ingeniari-tza, edo lizentzia edo gradu baliokidea, ekonomiaren, enpresaren edo teknologiaren arloetan.
- Goi mailako beste ingeniari-tza batzuk, edo beste lizentzia edo gradu batzuk.

LAUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA PROBEN BALIOESPENA:

1. FASEA: EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK EBALUATZEA:

Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).

- SAP produktuen arlo hauetakoren baten inguruko ezagutzak:
 - Tributuak
 - Ekonomia eta finantzak (sektore publikoa)
 - Giza baliabideak (sektore publikoa)

Adierazitako ezagutza espezifikoetakoren bat egiaztatu behar da, zinpeko adierazpen bidez.

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte izan beharko dira.

2. FASEA: MEREZIMENDUAK BALIOESTEA (30 puntu, gehienez ere):

A) Titulazioak eta ziurtagiriak (16 puntu, gehienez ere):

A.1) Bete beharreko eginkizunekin lotura duten titulazioak (8 puntu, geh.):

1. Informazio sistemekin lotutako goi mailako ingeniari-tza, edo lizentzia edo gradu baliokidea, ekonomiaren, enpresaren edo teknologiaren arloetan: 7 puntu.
2. Goi mailako beste ingeniari-tza batzuk, edo beste lizentzia edo gradu batzuk: 4 puntu.
3. Lizentziaz, goi mailako ingeniari-tzaz edo graduari baliokideaz gain, eskatutako ezagutzen inguruko master ofiziala edo gutxienez 60 ECTSko baliokidea: 1 puntu.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Lehenengo bi atalek elkar baztertzen dute; hau da, ezin dira inola ere batu lehenengo bi ataletako puntuazioak.

A.2) Ziurtagiriak (8 puntu, gehienez ere):

Arlo hauetako SAP ziurtagiriak izatea balioetsiko da (familia bakoitzeko ziurtagiri bakarra baloratuko da):

- "Tributuak" arloa: **5 puntu**
 - IPS520 Tax and Revenue Management
 - IPS510 Public Sector Correction and Disbursement
- "Giza baliabideak" arloa: **5 puntu**
 - HCM Espainiako Sektore Publikoa
- "Ekonomia eta finantzak" arloa: **3 puntu**
 - IPS910 Funds Management: Processes Organization and Configuration
 - SAP S/4 HANA Finance

Ziurtagiriei dagozkien puntuazioak batuko dira, **gehienez 8 puntu** batu arte.

B) Hizkuntzak (4 puntu):

B.1) Hizkuntza: euskara (2 puntu, geh.):

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

B.2) Hizkuntza: ingelesa (2 puntu, geh.):





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Titulu ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.
- Ez da egingo hizkuntza eskakizuna egiaztatze azterketarik.
- Honela balioetsiko da:
 - B1: **0,5 puntu.**
 - B2: **puntu 1.**
 - C1: **1,5 puntu.**
 - C2: **2 puntu.**
- Titulu ofizial bi edo gehiago izanez gero, maila altuenekoa bakarrik balioetsiko da.

C) Esperientzia (10 puntu, geh.):

- CV, curriculum memoria eta lan bizitzaren txosten eguneratuaren bidezko egiaztapena.

Bi urtetik gorako esperientzia azken lau urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak dituzten lanpostuetan.	- Oso egoki betetzen du: 10 puntu. - Nahiko egoki betetzen du: 7,5 puntu. - Egoki betetzen du: 5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 2,5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauzka: 0 puntu.
---	--

Urtebete baino gehiagoko esperientzia azken lau urteetan, lehenengo oinarrian zehaztutako eginkizunak dituzten lanpostuetan, sektore publikoko erakunderen batek zuzenean kontratatuta.	- Oso egoki betetzen du: 10 puntu. - Nahiko egoki betetzen du: 7,5 puntu. - Egoki betetzen du: 5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka: 2,5 puntu. - Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauzka: 0 puntu.
---	--



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Balioespena egiteko:

Honela balioetsiko da:	Baldin eta lehenengo oinarrian deskribatutako eginkizunen ehuneko hau modu frogagarrian islatzen bada:
Oso egoki betetzen du	% 100
Nahiko egoki betetzen du	> % 66 eta < % 100
Egoki betetzen du	> % 33 eta <= % 66
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alorren bat dauka	> % 0 eta <= % 33
Ez du egoki betetzen eta hobetu beharreko alor dezente dauzka	% 0

Alegatutako merezimendu guztiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira, eta lan kontratua formalizatzen den unera arte mantendu beharko dira.

Merezimenduen baremoetan, lanbide esperientziaren ondorioetarako, honako hauek balioetsiko dira: hautagaiak ahaideak zaintzeko edo genero indarkeriagatiko eszedentzian egon diren denbora; amatasuna eta aitatasuna babesteko edo erantzukizuna partekatuz norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egiten laguntzeko xedea duten lanaldi murrizketei edo baimenei egotzi ahal zaien denbora, eta emakume enplegatu publikoek genero indarkeriagatik baimenak erabili dituzten denbora.

3. FASEA: EZAGUTZA TEKNIKOEN PROBAK ETA LANPOSTUAREN PROFILERA EGOKITZEARI BURUZKO PROBA PSIKOMETRIKOAK

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
- Probak 2. faseko zenbaketa orokorrean eta 1. fasean gai jotzen direnen puntuaziorik onenei egingo dira. Formula honen arabera:

Balio handiena honakoen artean {
Behin betiko onartutakoen kopurua $\times$ 0,3
Plaza kopurua $\times$ 4
10





Arabako kalkulua Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Proba psikometrikoak:
 - Proba bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilera eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren balioesteko.
 - Qualis Consultores de Talento SLk txosten osatu bat egingo du 4. faseako proposatutako hautagai bakoitzaren inguruan.
- Ezagutza teknikoaren proba:
 - Ariketaren xedea izango da ezarritako denboran galdetegi bati (zenbait erantzunen artean hautatzeko galderak) idatziz erantzutea.
 - Ariketa hori zuzentzean, ondo erantzundakoen kopuruari errore kopuruaren herena kenduko zaio ($V = A - E/3^1$). Erantzun gabeko galderek ez dute zigorrik izango. Azken balioespena ehunenetan moztuko da.²
- Balioespena GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu edo gehiago lortu eta fase honetako proba psikometrikoetan gai izan direnentzat.
- Balioespena EZ GAI izango da ezagutza teknikoaren proban 5 puntu baino gutxiago lortu edota proba psikometrikoetan ez gai izan direnentzat.
- Gaitzat jotzen diren hautagaiek gaitasunei eta ezagutza teknikoei buruzko aurrez aurreko elkarrizketa egin beharko dute AKSAn, hautaketa prozesu honetarako eratu den hautaketa epaimahaiko kideen aurrean.
- Pertsonaren bat EZ GAI izanez gero edo 3. FASEan uko eginez gero, AKSAK probak egin ahal izango dizkie hurrengo puntuazio onenak dituzten pertsonen, eta hurrengo fasera (4.era) pasatuko dira gaitzat jo eta zortzi puntuazio onenak dituztenak.

4. FASEA: GAITASUNEI ETA EZAGUTZA TEKNIKOARI BURUZKO ELKARRIZKETA (20 puntu, gehienez ere)

- **Nahitaezkoa da.**
- Gaitasunei eta ezagutza teknikoari buruzko elkarrizketa 3. fasean gaitzak jo diren eta 2. faseko emaitza orokorrean puntuaziorik onenak lortu dituzten zortzi pertsonen egingo zaie.

V= ariketen balioespena, A= ondo erantzundako galderak, E = gaizki erantzundako galderak.
Moztea da hamarrenak ezabatzea borobiltzerik gabe, hamarren jakin batetik aurrera. AKSaren kasuan, bigarren dezimala da hori. Esate baterako, 4,171 eta 4,179 moztuta, 4,17 geratzen dira.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

- Elkarrizketa hautaketa epaimahaiko kideek egingo dute AKSA sozietatearen egoitzan, eta lanpostuko gaitasun orokorrak, zeharkakoak eta teknikoak balioestea izango du helburu.
- Elkarrizketak bi zati izango ditu:

- **Gaitasunak:** Honako gaitasun hauek balioetsiko dira: (10 puntu, geh.)
 - Komunikatzeko gaitasuna (2 puntu, gehienez ere)
 - Talde lana (2 puntu, geh.)
 - Antolamendua eta emaitzetarako orientazioa (2 puntu, geh.)
 - Autonomia eta ekimena (2 puntu, geh.)
 - Bezeroa orientatzea (2 puntu, geh.)

Fase honetako puntuazioa aztertutako gaitasunetako bakoitzean eskala honen arabera lortutako puntuazioen batura izango da:

- Gaitasun maila baxua: 0 puntu
- Gaitasun maila ertaina: 1 puntu.
- Gaitasun maila altua: 2 puntu.

- **Ezagutza teknikoa:** Elkarrizketa honetan, ezagutza hauek balioetsiko dira: (10 puntu, geh.)
 - SAP Tributuak (2 puntu, geh.)
 - SAP Ekonomia eta finantzak (sektore publikoa) (2 puntu, geh.)
 - SAP Giza baliabideak (sektore publikoa) (2 puntu, geh.)
 - Aurreko hiruren SAP elementu komunak (4 puntu, geh.)

- Gaitasunei eta ezagutza teknikoari buruzko elkarrizketaren akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, hautaketa epaimahaiko kide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Gutxieneko atalase hauek ezartzen dira:
 - Gaitasunen zatia: 5 puntu.
 - Zati teknikoa: 5 puntu.
- Zortzi hautagaietakoren bat aurreko puntuan eskatutako gutxieneko atalaseetara iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da, eta gainerako pertsonek jarraituko dute.
- Fase hori amaitu ondoren gai diren pertsonak zortzi baino gutxiago badira, hautaketa epaimahaiak ahalmena izango du, egoeren arabera, gai den hurrengo hautagaiarengana edo hautagaiengana jotzeko.





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
Ez dagokio	30	Ez dagokio	20	50

